# CAMPAÑA CARITAS

## *"VOLUNTARIOS CON CORAZÓN"*
## *18 de septiembre del 2016*

**(Domingo 25º del Tiempo Ordinario - Ciclo C)**

***MONICION de entrada:***

Hemos venido a presentar confiadamente nuestras súplicas a Dios y a ofrecerle nuestra acción de gracias por medio de Jesucristo nuestro Señor, el único mediador entre Dios y los hombres. El Señor nos pregunta hoy: "¿Qué habéis hecho con las muchas cosas y las personas que os he confiado?".

Hoy se habla mucho de rendimiento de cuentas, no solamente sobre nuestros empleos y trabajos, nuestras finanzas, nuestras familias y nuestras parroquias, sino también sobre nuestras propias vidas. Dios ha puesto tanto en nuestras manos! Las cosas materiales que poseemos, así como nuestros talentos y dones espirituales. Éstos no son dones personales solamente para nuestro propio disfrute, sino para servicio de nuestras comunidades, para el Reino de Dios.

Así lo entendemos en Caritas donde el trabajo del voluntario se hace don de sí mismo, oferta de solidaridad desde la acogida de la gracia de Dios hacia cada uno de nosotros. Ser agradecidos con todo lo que recibimos para saber dar a los demás de lo que podemos aportar es nuestro carisma.

## *PERDON*

Pedimos al Señor que nos perdone por el egoísmo con que hemos manejado todo lo que se nos ha confiado.

Señor Jesús, cuando nos llamaste para ser buenos administradores, permitimos que el dinero y las posesiones nos dominaran.

**Señor, ten piedad.**

Cristo Jesús, tú viniste a liberarnos, pero nosotros dejamos que el poder y la ambición nos amarren y aprisionen.

**Cristo, ten piedad.**

Señor Jesús, cuando querías que sirviéramos a los pobres, nosotros les dimos sólo limosnas, en vez de darnos generosamente a nosotros mismos.

**Señor, ten piedad.**

Haznos libres de nuevo, Señor. Líbranos del pecado y haznos buenos administradores de los bienes de la tierra. Y llévanos a la vida eterna.

## LECTURAS

**Primera Lectura** (Am 8,4-7): **El Pueblo de Dios debe ser un pueblo justo:** En el nombre de la verdadera religión, el profeta Amós aconseja al pueblo de Dios: Dios les va a rechazar si se enriquecen a sí mismos a expensas de los pobres.

**Segunda Lectura** (1 Tm 2,1-8): **Dios quiere que todos se salven:** La oración litúrgica, dice San Pablo, debe ser universal y misionera, ya que Dios quiere que todos y cada uno de los hombres se salven por medio de su único mediador, Jesucristo.

**Evangelio** (Lc 16,1-13): **Ríndeme cuentas de tu servicio**
El corazón de los cristianos debe ser indiviso. Su principal preocupación es servir fielmente a Dios y compartir generosamente todo lo que poseen con los hermanos más pobres.

## SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

### La justicia como criterio de comportamiento habitual

Los grandes ídolos del mundo, como bien lo comprobamos cada día, son el dinero y el poder. No porque sean el demonio o porque, en sí mismos, sean algo pecaminoso. No se trata de eso. Se trata de que nos dominen el corazón, las entrañas y la cabeza. El poder de dominar este mundo haciendo, como dice Jesús que <<los hijos de las tinieblas sean más astutos que los hijos de la luz>> es el pecado raíz de las personas y los pueblos donde se privilegia el dinero y poder sin justicia.

Este poder de la ambición injusta, lleva al abuso de los más pobres y débiles de la sociedad y del planeta. Hoy, como en tiempos del profeta Amós, se sigue robando al pobre, <<vendéis con trampas, explotáis a quien no tiene ni tan siquiera sandalias>>. En la parábola que Jesús nos propone en el evangelio ocurre lo mismo, un hombre que se enriquece con trampas y utiliza su ingenio para escapar del castigo y seguir disfrutando del producto del robo. Aquí está presente la corrupción entendida como ingenio y triquiñuela, tan actual entre nosotros. Ciertamente parece que las cosas, a veces, no cambian.

Jesús, evidentemente, no admira a este administrador injusto, no lo alaba por su sagacidad, como a veces se dice. No es así. Jesús lo que hace es advertirnos de que en la construcción del reinado de Dios hay que ser justos: <<no se puede servir a Dios y al dinero>>. Dice bien San Pablo en la segunda lectura de hoy sobre la oración de petición,

<<pedid por los gobernantes, para que sean justos>>. Pidamos no sólo por los gobernantes, sino por todos nosotros, para que seamos justos, empezando por nuestra propia casa, familia y vecindad.

**La solidaridad como principio vital de la fe que actúa en la caridad**

Por otra parte, este año, estamos animando a todos los colaboradores de Caritas y especialmente al voluntariado de nuestras comunidades cristianas y parroquias, a reflexionar sobre el trabajo específico de la actividad caritativa de la Iglesia, para que no quede todo en un buen servicio social sino que este servicio sea donación permanente del amor de Dios y acompañamiento de las personas como hijos de Dios.

El día del Corpus recordábamos cómo el papa Benedicto XVI en su extraordinaria encíclica *Deus caritas est* (2005, n. 31) concretaba todo esto, en este sentido, al referirse al voluntariado y los trabajadores de Caritas, así como a los cristianos, en general: <<…quienes prestan ayuda a los que sufren, es preciso que sean competentes profesionalmente, tienen que formarse de manera que sepan hacer lo más apropiado y lo más adecuado, asumiendo el compromiso de que continúen después las atenciones necesarias. La competencia profesional es lo primero pero por sí mismo no basta… Se trata de seres humanos que necesitan siempre algo más que una atención sólo técnicamente correcta. Necesitan humanidad. Necesitan atención cordial. Cuantos trabajan en las instituciones caritativas de la iglesia deben distinguirse por no limitarse a realizar con destreza lo más conveniente en cada momento, sino por su dedicación al otro con una atención que sale del corazón, para que el otro experimente su riqueza de humanidad. Por eso, además de la preparación profesional, necesitan también y sobre todo una formación del corazón; se les ha de guiar hacia ese encuentro con Dios en Cristo, que suscite en ellos (los agentes), el amor y abra su espíritu al otro, de modo que, el amor al prójimo ya no sea un mandamiento por así decir impuesto desde fuera, sino una consecuencia que se desprende de su fe, la cual actúa por la caridad>>.

## *ORACION DE LOS FIELES*

Pidamos al Señor, nuestro Dios, que oriente los corazones de todos hacia los verdaderos valores eternos.

- Por la Iglesia, para que sea una Iglesia servidora y una Iglesia de los pobres, dando testimonio del amor gratuito de Dios, como una parábola viviente de lo que deber ser nuestro compartir generoso con los hermanos. Roguemos al Señor
- Por los que tienen puestos de responsabilidad en la política, las finanzas y la economía, para que la justicia y la preocupación sincera por el bien de todos guíen sus decisiones y acciones. Roguemos al Señor
- Por los que viven con el esfuerzo de sus manos en trabajos manuales, para que la gente reconozca su dignidad y el importante servicio que prestan a todos. Roguemos al Señor
- Por los pobres, por los discriminados, y por todos los que tienen muy poco acceso a los bienes de este mundo, para que reciban una participación más justa e imparcial de los mismos bienes. Roguemos al Señor
- Por nuestras comunidades cristianas, para que haya justicia entre nosotros y una profunda preocupación por la felicidad de todos; para que la codicia dé paso al compartir generoso, y la envidia dé paso al amor servicial, roguemos al Señor

Señor Dios nuestro, líbranos de todo lo que nos induce a replegarnos con egoísmo en nosotros mismos. Danos la gracia de vivir los unos para los otros y para ti, Dios nuestro, por los siglos de los siglos.

## Introducción al Padre Nuestro

Con Jesús nuestro Señor roguemos a nuestro Padre del cielo por la venida de su reino, antes de rogar por nuestras propias necesidades. Padre nuestro…

> Líbranos, Señor
> Líbranos, Señor, de todos los males
> y extiende tu paz a todo el mundo.
> Que sea una paz basada en la justicia
> y en el acceso abundante de cada persona y nación
> a los bienes de la tierra,
> tanto materiales como espirituales.
> Ayúdanos a vivir sin lujo y ostentación
> y sin necesidades artificiales.
> Y que sepamos trabajar juntos
> para la venida plena entre nosotros.
> de nuestro Señor y Salvador, Jesucristo. Tuyo es el reino…

## Bendición final

Hermanos: Seamos buenos administradores de todos los dones que Dios nos da, utilizados en servicio de Dios y de los que nos rodean. Y seamos también buenos administradores los unos de los otros. Para ello, que la bendición de Dios todopoderoso, Padre, Hijo y Espíritu Santo, descienda sobre nosotros y nos acompañe siempre.

# CARITAS KANPAINA

***“ BAT EGIN  Gipuzkoako BIHOTZAREKIN”***

## *2016eko irailaren 18a*

## (Urtean zeharreko aldiko 25. igandea - C zikloa)

***SARRERA:***

Gure eskaerak konfiantza osoz Jainkoari aurkeztera etorri gara, eta Jesukristo gure Jaunaren, Jainkoaren eta gure arteko bitartekari bakarraren, bitartez eskerrak eman nahi dizkiogu. Jainkoak gaur hau galdetu digu: “Zer egin duzue nik bidalitako pertsona eta gauza ugariekin?”

Gaur asko hitz egiten da kontu emateaz, ez soilik gure lanaren eta lanpostuaren, finantzaren, familien eta parrokien arloan, baita gure bizitzaren beraren arloan ere. Jainkoak hainbeste eman digu! Ditugun gauza materialak, gure talentuak eta dohain espiritualak. Dohain pertsonal horiek ez dira soilik guk haietaz goza dezagun, baizik eta gure komunitateari, Jainkoaren Erresumari zerbitzua emateko ere badira.

***Halaxe ulertzen dugu Caritasen; bertan, boluntarioen lana dohaintza bilakatzen da; gutako bakoitzak Jainkoaren grazia onartzen duen unetik elkartasun eskaintza bilakatzen da. Esker onekoak izan behar dugu jasotzen dugunarekin, eta gogoan izan behar dugu gure ingurukoei eman diezaiekeguna ematea dela gure karisma.***

## *BARKAMENA*

Jaunari barkamena eskatzen diogu, eman digun guztia kudeatzean geurekoiak izan garelako.

Jesus gure Jauna, kudeatzaile onak izateko eskatu zenigun,
baina diruak eta ondasunek kontrola gintzaten utzi genuen.
**Erruki, Jauna.**
Kristo Jesus, gu askatzeko etorri zinen, baina botereak eta
handinahiak harrapatu eta lotu egin gaituzte.
**Kristo, erruki .**
Jesus gure Jauna, txiroen zerbitzura jarduteko eskatu zenigun,
baina guk limosna baino ez genien eman, gure burua
eskuzabaltasunez eskaini beharrean.
**Erruki, Jauna**

Aska gaitzazu berriz ere, Jauna. Aska gaitzazu bekatutik eta bilaka gaitzazu lurreko ondasunen administrari on. Eta eraman gaitzazu betiko bizitzara.

## *IRAKURGAIAK*

**Lehenengo Irakurketa** (Am 8,4-7):**Jainkoaren Herria bidezko herria izan behar da:** Benetako erlijioaren izenean, Amos profetak hau

aholkatu dio Jainkoaren Herriari:Jainkoak arbuiatu egingo ditu behartsuen bizkar aberasten badira.

**Bigarren irakurketa**(1 Tm 2,1-8): **Jainkoak guztiok salba daitezen nahi du:** San Pauloren esanetan, otoitza liturgikoa unibertsala eta misiolaria izan behar da; izan ere, Jainkoaren nahia da gizon guztiak bere bitarteko bakarraren, Jesukristoren, bitartez salbatzea.

**Ebanjelioa** (Lk 16,1-13): **Emadazu zure zerbitzuen kontu**

Kristauen bihotzak zatitugabea izan behar du. Haien kezka nagusia Jainkoa fideltasunez zerbitzatzea eta duten guztia anaia behartsuagoekin partekatzea da.

## ***HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK***

**Justizia, ohiko portaerarako irizpide gisa**

Egunero ikusten dugun moduan, munduko idolorik handienak dirua eta boterea dira. Ez deabrua direlako edo besterik gabe bekatu direlako. Ez da hori. Kontua da bihotzak, barrunbeek eta buruak mendean har gaitzatela. Jesusek dioen moduan <<itzalen semeak argiaren semeak baino azkarragoak>> izanda mundu hau mendean hartzea da diruak eta justiziarik gabeko botereak lehentasuna duten herrien eta pertsonen oinarrizko bekatua.

Handinahikeria bidegabearen botere horrek gizarteko eta planetako behartsuekiko eta ahulekiko gehiegikeriaz jokatzea eragiten du. Gaur egun, Amos profetaren garaian gertatzen zen moduan, behartsuei lapurreta egiten jarraitzen dute, <<iruzur eginez saltzen duzue, sandaliarik ere ez dutenak esplotatzen dituzue>>. Ebanjelioak proposatzen digun Jesusen parabolan gauza bera gertatzen da; gizon batek iruzurra erabiltzen du aberasteko, eta asmamena erabiltzen du zigorra ekiditeko eta lapurtutakoaz gozatzen jarraitzeko. Hortxe ageri

da asmamen eta trikimailu gisa ulertutako ustelkeria, gaur egun gure artean hain ohikoa dena. Badirudi gauza batzuk ez direla inoiz aldatzen.

Jesusek, noski, ez du administrari bidegabe hori miresten, ez du haren buruargitasuna laudatzen, batzuetan esaten den moduan. Ez da hala. Jesusek ohartarazi egiten gaitu, esaten digu Jainkoaren erreinua eraikitzeko bidezkoak izan behar dugula:<<Ezin zaitezkete Jainkoaren eta diruaren morroi izan>>. Hauxe dio San Paulok gaurko bigarren irakurketan, eskatzeko otoiari buruz: <<egin otoi gobernarien alde, bidezkoak izan daitezen>>. Egin dezagun otoi ez soilik gobernarien alde, baizik eta geure alde ere bai, bidezkoak izan gaitezen, gure etxetik, familiatik eta auzotik bertatik hasita.

**Elkartasuna, karitatea gidatzen duen fedearen funtsezko printzipioa**

Beste alde batetik, aurten, Caritaseko laguntzaile guztiak eta, bereziki, gure kristau komunitateko eta parrokietako boluntarioak animatzen ari gara Elizaren karitate-ekintzaren jarduera zehatzari buruz hausnartzeko; horren helburua da egindako lana ez izatea soilik gizartearen onurarako zerbitzu bat, baizik eta baita Jainkoaren maitasunaren etengabeko dohaintza eta pertsonek, Jainkoaren seme diren heinean, merezi duten etengabeko laguntzaren adierazle ere.
Corpus egunean gogoratu genuen Benedicto XVI aita santuaren *Deus caritas est* (2005, 31 zk.) entziklika bikaina; bertan, esan berri dugunari buruz jarduten zuen, eta honako hau esan zuen Caritaseko boluntario eta langileei eta, oro har, kristauei buruz:<<...ezinbestekoa da gehien sufritzen duten pertsonei laguntzen dietenek gaitasun profesional egokiak izatea; beharrezko prestakuntza izan behar dute egokiena eta komenigarriena zer den jakiteko eta beharrezko zaintzak ematen jarraitzeko konpromisoa hartzeko. Gaitasun profesionala da behar den

lehenengo gauza, baina hori soilik ez da nahikoa... Gizakiek teknikoki zuzena den zaintza bat baino gehiago behar dute. Gizatasuna behar dute. Arreta adeitsua behar dute. Elizaren karitate-erakundeetan lan egiten duten pertsonen ezaugarri nagusia ezin da izan soilik une bakoitzean komenigarriena dena trebetasunez egiteko gai izatea, baizik eta ingurukoei bihotzetik ateratako laguntza emateko gai izatea, besteek laguntzaileen gizatasuna zeinen aberatsa den sentitu ahal izan dezaten. Hori dela eta, prestakuntza profesionalaz gain, beste ezeren gainetik, bihotzeko prestakuntza behar dute, batez ere; Kristorengan gorpuztutako Jainkoarekin topo egiteko bidea erakutsi behar zaie, horrek piztuko baitu haiengan (eragileengan) maitasuna eta espiritua beste batzuei irekitzeko nahia. Horri esker, hurkoa maitatzea ez da izango kanpotik inposatutako agindu bat, nolabait esateko, baizik eta bere fedearen ondorio bat, karitatez jokatzera bultzatzen duena>>.

## ***HERRI OTOITZA***

Eska diezaiogun Jaunari, gure Jainkoari, gure bihotzak benetako betiereko balioetarantz gida ditzala.

- Elizaren alde, zerbitzatzen duen eta behartsuei laguntzen dien Eliza bat izan dadin, Jainkoaren maitasunaren doako lekuko izan dadin, anaiekin eskuzabaltasunez partekatzea zer izan behar den islatzen duen parabola bizidun bat izan dadin. **Egin dezagun otoitz.**
- Politikan, finantzetan eta ekonomian erantzukizun-postuak dituztenen alde, guztion ongizatearen aldeko kezkak eta justiziak haien erabakiak eta ekintzak gida ditzaten. **Egin dezagun otoitz.**
- Bizitzeko eskulan neketsuak egin behar dituzten pertsonen alde, gizarteak haien duintasuna eta ematen duten zerbitzuak guztiontzat duen garrantzia aitor dezan**. Egin dezagun otoitz.**
- Jaioberrien alde, baztertuen alde eta mundu honetako ondasunak eskuratu ezin dituztenen alde, ondasun horietan modu bidezkoago

eta inpartzialagoan parte hartu ahal izan dezaten. **Egin dezagun otoitz.**

- Gure kristau-komunitateen alde, guztion artean justizia egon dadin, bai eta hurkoaren zoriontasunari buruzko ardura sakona ere; dirugosez bizi ordez eskuzabaltasunez parteka dezagun, eta bekaizkeriaz jokatu ordez maitasunez zerbitza dezagun. **Egin dezagun otoitz.**

Jainkoa gure Jauna, aska gaitzazu gure baitan biltzera bultzatzen gaituen bekaizkeriatik. Emaguzu grazia elkarren zerbitzura bizi gaitezen, bai eta zure zerbitzura ere, gure Jainko, behin eta betiko.

## Gure Aitaren sarrera

Jesus gure Jaunarekin egin diezaiogun otoi gure zeruko Aitari bere erreinua etor dadin, gure beharrei buruz otoi egin aurretik. Gure Aita...

Aska gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik
eta zabaldu zure bakea munduan.
Izan dadila justizian oinarrituriko bakea
eta pertsona eta herri guztien oparotasunean oinarritutakoa
Lurreko ondasunak erabili ahal izan ditzaten,
hala materialak nola espiritualak
Lagundu iezaguzu luxurik eta nabarmenkeriarik gabe bizitzen
eta behar artifizialik gabe.
Eta izan gaitezela elkarrekin lan egiteko gai
gure artera ongietorria egin ahal izateko
gure Jaun eta Salbatzaile, Jesukristori. Zurea da erreinua...

## Amaierako bedeinkapena

Anaia-arrebok:Kudea ditzagun behar bezala Jainkoak ematen dizkigun

dohaintza guztiak; erabil ditzagun Jainkoaren eta inguruan ditugunen zerbitzura. Horretarako, jaso dezagun Jainko ahalguztidunaren, Aita, Seme eta Espiritu Santuaren bedeinkapena, eta izan dadila beti gurekin.